| | |
|---|---|
| Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua / Servicio Vasco de Empleo | **EKINTZAILETZAKO TOKIKO PROIEKTUEN BARRUAN ENPRESA-IDEIA BERIAK SUSTATZEN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN IRAGARKIA** |

| | |
|---|---|
| **LAGUNTZAREN XEDEA** | Ekintzaileak izan litezkeen pertsonei laguntzea, enpresa ideia bat sortzera, aztertzera eta egituratzera bakarrik dedika daitezen, ondoren ideia hori bideragarritasun plan batean zehaztu ahal izateko. |
| **DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA** | Edozein jarduera-adarreko negozio-ideia bat aztertzea eta garatzea, horretara bakarrik dedikatuko direlarik ezarritako eskakizunak betetzen dituzten sustatzaileak. |
| **ONURADUNEN ESKAKIZUNAK** | • EAE-n bizitzea.<br>• 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago edukitzea.<br>• Langabe egotea eta Euskal Enplegu Zerbitzuan- Lanbiden izena emanda egotea.<br>• JEZ altan ez egotea eta Langile Autonomoen Erregimen Berezian.<br>• Enpresa edo negozio berria ezartzeko bideragarritasun plan bat edukitzea.<br>• Lanbidek laguntzaile gisa baimenduriko erakundeetako batean egotea ekintzailetzarako aholkularitza eta babes prozesu batean (Meatzaldeko Behargintza diru-laguntza hauek kudeatzeko erakunde laguntzailea da). |
| **PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KONPROMISOA** | • Ideia enpresariala aztertzera eta garatzera bakarrik dedikatzea aholkularitza hasi (Meatzaldeko Behargintzaren kasuan 2014ko urriaren 29an hasiko da aholkularitza prozesua) eta hiru hilabetez.<br>• Erakunde laguntzaileak definituriko ideia enpresarialak sortzeko eta garatzeko aholkularitza eta laguntza jarduketa guztietara joatea.<br>• Laguntza aldia ideia enpresariala proiektu enpresarial bihurtuta amaitzea. |
| **LAGUNTZAREN ZENBATEKOA** | • **2.000 euro.** |
| **ESKAERA, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEA** | Eskaerak Meatzaldeko Behargintzan eta Muskiz, Abanto-Zierbena, Trapagaran eta Zierbenako Tokiko Garapen Agentzietan , bulego horietan emango dizkieten eskaera-orri ofizialean, **azaroaren 7a baino lehenago**. Eskaerarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:<br><br>• Pertsona sustatzailearen NAN.<br>• Errolda ziurtagiria.<br>• Lanbideko DARDE delakoa.<br>• Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, programan parte hartzea egiaztatuko duena. |